

Euskal zinemaren inoizko uztarik oparoena

SERGIO BASURKO


Zinemira da berriaz euskal zinemari eskainitako saila, eta aurtengo hamahiru proposamen jasoko ditu. Horietako lau Zinemaldian erabateko estreinaldia izango duten film luzeak dira eta, hortaz, Euskal Zinemaren Irizar Saria eskuratzeko hautagai izango dira. Donostia Zinemaldiak eta Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak antolatutako saila da Zinemira, Irizarrek, EITBk eta Urbilek babestua, eta Euskadiko Filmategiaren, EPE-IBAIA ekoiztetxe-elkartearen eta Zineuskadiren lankidetzak du.

Inge Mendiorozek bere bigarren ez-fikzioarekin irekiko du saila. Artxi-boko irudiak eta euskal musika eta literaturaren munduko hainbat pertsonaren aitortzak baliatuz, *Lurdes Iriondo, ez gera alferrik pasako* ondu du zuzendari gipuzkoarrak, euskal kantagintzaren ikur honen bizitza beste ikuspegi batetik kontatzen duen biografia.

Beste pertsonaia ospetsu baten biografiak emango dio amaiera Zinemirari; Anuska Ariztimuñoren *Hombre bala* ez-fikzioak, Mikel Erentxun musikari donostiarraren ibilbide profesionalaren eta bizitza pertsonalaren artean nabigatzen duenak.

Film biografikoen sokari jarraituz, dagoeneko bi Goya sari bereganatuta dituen Gaizka Urrestik autore sailkaezin baten kontakizuna egiten du *Eloy de la Iglesia, adicto al cine* pelikulan.

Arg(h)itzen: torturaz argi hitz egiten, tortura ez-fikzioa Manu Gomezen gidaritzapean egindako auzolan baten emaitza da. Filmak 1966 eta 2011 urteen artean Nafarroako Sakana eskualdean tortura pairatu zuten 30 lagunen lekukotzak jasotzen ditu, tor-



tura zer den erakutsi eta estatuen inpunitate egiturak argitara ateratzeko asmoz.

Zinemira lehiaz kanpo

Jesus Mari Lazkanok lehiaz kanpo emango dio hasiera Zinemirari, *Lurdes Iriondo, ez gera alferrik pasako* filmarekin batera proiektatuko den *Natura fugit* film laburrekin. Margo-

lari ospetsuak, *ARTIKO* dokumentalaren ostean, animazioko film labur hau ondu du lau urteetan zehar, fotogramaz fotograma, formatu handiko 3.000 margo originaletan oinarrituta.

Donostiako euren emanaldiak baino lehenago estreinatu izanagatik Euskal Zinemaren Irizar Sarirako hautagaiak ez diren beste zortzi ekoizpenek hartuko dute parte sailean:



Altunarentzat eta Esnalentzat aurtengo Zinemira saria

Zinemira saria Donostia Zinemaldiak eta EPE-IBAIA ekoizle-elkarteak ematen duten ohorezko saria da eta euskal zinemagintzaren alorreko pertsona ospetsu baten ibilbidea aitortzen du. Aurtengo, Telmo Esnal eta Asier Altuna zinemagileak omenduko dituzte Euskal Zinemaren galan.

Telmo Esnalek eta Asier Altunak elkarrekin hasi zuten zinema ibilbidea *Txotx* eta *40 ezetz* film laburrekin. 2005ean elkarrekin zuzendu zuten lehen film luzea, *Aupa Etxebeste!*, zeinaren 20. urteurrenaren harira jasoko duten aurtengo Zinemira Saria. Komedia honek Zinemaldiko Gazteriaren Saria eta Goya sarietarako zuzendari berri onenaren izendapena balio izan zizkion bikote gipuzkoarrari. Pelikula mugarri bihurtu zen euskarazko zineman. Geroztik, Esnalek eta Altunak titulu gehiagotan kolaboratu dute, hala nola, *Iraila*, *Kalebegiak* lan kolektiboaren film laburrean, eta haien debutaren sekuelan, *Agur, Etxebeste!* film luzean.

Bakarka, Esnalek honako lan hauek zuzendu ditu: *Urte berri on, amona!* komedia, dantza tradizionalen bidez euskal gizartearen erretratu poetikoa egiten duen *Dantza* eta existentziari buruz hausnartzen duen *Urtzen*, baita *Dantza urratsak* serie dokumentala ere. Altunak, bestalde, bat-bateko ahozketasunean barrena bidaia egiten duen *Bertsolari*; bizitza ulertzeko bi moduren arteko gatazka islatzen duen eta Irizar Saria eskuratu zuen *Amama*; euskal gastronomiaren eboluzioa kontatzen duen *Arzak since 1897* eta Cristina Iglesias eskultorearen obra esploratzen duen *Hondalea* zuzendu ditu. Zinemaldiaren aurtengo edizioan ere parte hartuko du Altunak, *Karmele* aurkeztuko baitu Sail Ofizialeko Emanaldi Bereziarian, lehiaz kanpo.

Daniela Forever, Nacho Vigalondoren azken lana; *Ombuaren itzala*, Patxi Bisquert aktoreak zuzendutako lehen filma, Pello Mari Otaño bertsolariaren bizitzaren pasarte bat kontatzen duena. Halaber, Borja Cobeagaren azken komedia, *Los aitas*; Asier Urbietaren lehen film luzea, *Faisaien irla*, Göteborgeko zinema jaialdian lehiatu zena; Oier Plazaren ez-fikziozko debuta, *Popel/Errautsak*, bere estreinaldia Pragan izan zuena; Sara

Fantovak zuzendutako lehen lana, *Jone, batzuetan*, Malagako jaialdian aipamen bat eskuratu zuena; Gijongo jaialdian lehiatutako eta Larrait Zuazok, Zuri Goikoetxek eta Ainhoa Andrakak elkarlanean zuzendutako *Itoiz udako sesioak*, eta Arantxa Aldaz, Javier Roldán eta David Taberna El Diario Vasco egunkariko kazetariak zuzendutako *Gregorio Ordoñez, el asesinato que despertó la rebelión contra ETA* ez-fikzioa.

LURDES IRIONDO
EZ GERA ALFERRIK PASAKO
INGE MENDIOROZ IBAÑEZEN FILM BAT

SSIFF
ZINEMIRA

Azaroaren 14an
ZINEMA-ARETOETAN